



## ARTZINIEGA KO UDALA

### AKTA

**Saioa: Ohiko osoko bilkura**  
**Eguna: 2017ko ekainak 8**  
**Ordua: 09:05 – 09:45**  
**Lekua: Udaletxeko Bilkura Gela**

Bertaratutakoak:

Iñigo Gomez Unzueta  
Inmaculada Vivanco Retes  
Jose Luis de Valle Duque  
Maria Lorente Burgos  
Joseba Mirena Vivanco Retes  
Alazne Lafragua Ureta  
Arkaitz San Jose Martinez  
Unai Gotxi Kastrexana

Ez dira agertu: Joseba Elejalde Ribacoba, ez bertaratzearen arrazoia azaldu duena.

M<sup>a</sup> Ascension Hormazabal Meabe, Idazkari eta Kontu-hartzailea.

Saioa hasita eta lehendakariak publikotzat jo ostean, 09:05etan, gai-zerrendako puntuak ezagutarazi dira, eta akordio hauek hartu dira:

### **1. 2017ko maiatzaren 11n egindako saioko zirriborro-akta onartzea, hala badagokio.**

Alkatea: Zer edo zer esan nahi duzue?

Bozkatu egin da:

Kontrako botoak:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Jose Luis de Valle Duque eta Maria Lorente Burgos EAJ alderdiko kideak (4); Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EH Bildu alderdiko kideak (4).

Onartuta geratu da.

### **2.- Jarduera Ekonomikoei buruzko Zerga arautzeko Ordenantza fiskala aldatzea.**

#### **“2017KO MAIATZAREN 31N EGINDAKO SAIOAN ANTOLAKETA INFORMAZIO-BATZORDEAK EMANDAKO IRIZPENA**

*Ikusirik Jarduera Ekonomikoei buruzko Zergari buruzko uztailaren 19ko 43/1989 Foru Araua aldatzen zuen 2016ko abenduaren 28ko 18/2016 Foru Araua.*



Legez ezarritako izapidea eginda, Udalbatzari proposatzen zaio har dezala hurrengo

## **AKORDIOA**

**LEHENA.** Jarduera Ekonomikoei buruzko Zerga arautzen duen Ordenantza Fiskalaren aldaketari hasierako onarpena ematea espedientean agertzen diren baldintzetan, jarraian jasotzen den moduan idatzita:

### **JARDUERA EKONOMIKOEI BURUZKO ZERGA ARAUTZEKO ORDENANTZA FISKALA**

#### **I. XEDAPEN OROKORRAK**

##### **1. artikulua**

Udal honek, Arabako Lurralde Historikoko Tokiko Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan eta zergari dagokion Foru Arau zehatzean ezarritakoarekin bat etorriz, Jarduera ekonomikoei buruzko Zerga eskatzen du Ordenantza honen arabera, zeinaren parte den tarifa aplikagarria eta bilketa-aldia jasotzen dituen Eranskina.

##### **2. artikulua**

Ordenantza Udal barruti osoan aplikatzen da.

#### **II. ZERGA-EGITATEA**

##### **3. artikulua**

Zerga-egitatea dakar udalerrian enpresa mailako jarduerak, profesionalak edo artistikoak burutze hutsak, lokal jakin batean burutu zein ez burutu, eta Zergen Tarifetan zehaztatuta egon zein ez egon.

Zerga honen ondorioetarako, enpresa mailako jardueratzat hartzen dira abeltzaintzakoak, izaera independentea dutenean, meatzekoak, industrialak, komertzialak eta zerbitzuetakoak. Horrenbestez, ez dira halako jardueratzat hartzen nekazaritzako jarduerak, mendeko abeltzaintzako jarduerak, basozaintzakoak eta arrantzakoak, horietako bakarrak ez dakarrelarik zergapeko zerga-egitaterik.

Aurreko lerroaldean aurreikusitakoaren ondorioetarako, ganadutegi independentetzat hartuko dira, kasu hauetakoren batean sartzen diren abere buruak:

- a) Funtsean aziendaren jabeak nekazaritza edo basozaintza eran ustiatzen ez dituen lurretan bazkatzen edo elikatzen direnak.
- b) Landa-lursailetatik kanpo ukuiluratuta daudenak.
- c) Trashumantzia edo trasterminantziakoak.
- d) Funtsean hazten diren lursailean sortutakoak ez diren pentsuekin elikatzen direnak.

##### **4. artikulua**

1.- Enpresa mailako jarduera, profesional edo artistiko modura hartuko dira honako hauek betetzen duten jarduerak: ekoizteko bideak edo baliabideak edo horietako bat norbere kontura antolatzea, ondasunen edo zerbitzuen ekoizpenean edo banaketan esku hartzeko asmoz.

2.- Zergapeturiko jardueren edukia zergaren tarifetan ezarriko da.

##### **5. artikulua**

Zergapeturiko jarduerak garatzen direla frogatzeko, zuzenbidez onar daitekeen edozein bide eta, bereziki, Merkataritza Kodearen 3. artikuluan ezarritakoak beteko dira.

##### **6. artikulua**

Honako jarduera hauek gauzatzeak ez du zerga honen zergapeko egitaterik ekarriko:

- 1.- Nekazaritzakoak, mendeko abeltzaintzakoak, basozaintzakoak eta arrantzakoak.
- 2.- Enpresatako aktibo finkoko ondasunak besterentzea, baldin eta ondasun horiek besterendu baino bi urte lehenago aktibo ibilgetu gisa ageri izan badira inbentarioan; eta saltzaileak berak erabiltzen dituen ondasunen salmenta, baldin eta horiek denboraldi berean erabili baditu.
- 3.- Norbanako lanak edo lanbide zerbitzuak ordaintzeko jasotzen diren gaien salmenta.
- 4.- Establezimendua apaintzeko erabiltzen diren gaiak erakustea. Aitzitik, zergapean egongo dira bezeroei erakustekoak diren gaien erakusketak.
- 5.- Eragiketa edo egintza bakanen bat burutzea, txikizkako salmenta denean.

#### **III. SALBUESPENAK**

##### **7. artikulua**



Honako hauek ez dute zerga ordaindu beharko:

- a) Estatura, Euskal Autonomia Erkidegoa, Arabako Foru Aldundia eta toki erakundeak, bai eta Estatuaren erakunde autonomoak eta Lurralde Administrazio horietako zuzenbide publikoko erakundeak, izaera berekoak direnean.
- b) Jarduerari ekiten dioten subjektu pasiboak, jarduera hasi eta zerga honen lehenengo bi zergaldietan.

Ondorio horietarako, jarduera bat ez da hasitzat joko lehenago beste titulartasun batekin egin bada; esaterako, bategitea, bereizketa edo jarduera arloren baten gehikuntza gertatu bada.

- c) Urteko eragiketa bolumena **1.000.000** eurotik beherakoa duten subjektu pasiboak.

Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunei dagokienez, salbuespena establezimendu iraunkorrean dihardutenek soilik aplikatu dezakete, baldin eta eragiketa bolumena **1.000.000** eurotik beherakoa bada.

Nolanahi ere, salbuespen hau aplikatzeko ezinbestekoa da subjektu pasiboek ez edukitzea %25tik gorako partaidetza emanda letra honetan eragiketa bolumenari buruz ezarritako betekizuna betetzen ez duten enpresei, salbu eta **Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 77. artikuluan aipatzen diren arrisku kapitaleko funtsak edo sozietateak direnean**, eta partaidetza hori sozietatearen xedearren betekizunaren ondorio denean.

Letra honetan ezarritako salbuespena aplikatzeko erregela hauek hartu behar dira kontuan:

1. Eragiketa Bolumena **Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 5. artikuluko 1. Atalean** ezarritakoaren arabera zehaztuko da.
2. Sozietateen gaineko Zergaren, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Ez Egoiliarren Errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboaren eragiketen bolumena hauxe izango da: aitortpena zerga zorra sortu den urtearen aurreko urtean aurkeztu beharreko zergaldikoa. Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 35. artikuluko 3. atalean aipatutako sozietate zibilen eta erakundearen eragiketen bolumena zerga honen ziozko zorra sortu den urtearen azken aurreko urtekoa izango da. Zergaldia urtebete baino laburragoa izan bada, eragiketen bolumena urtekoratu egingo da.
3. **Subjektu pasiboaren eragiketen bolumena kalkulatzeko hark egindako jarduera ekonomiko guztiak hartuko dira kontuan.**  
**Erakundea, Merkataritzako Kodearen 42. artikulua arabera, sozietate talde bateko kidea bada, lehenago aipatu magnitudeak talde horretako erakundearen multzoari egokituko zaizkio.**
4. Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren kargapekoen eragiketen bolumena Espainiako lurraldean dituzten establezimendu iraunkor guztiei egotzi ahal zaizkio izango da.
  - d) Gizarte Segurantzaren eta indarreko legeriaren arabera eraturiko mutualitate eta montepioen kudeaketa-erakundeak.
  - e) Ikerketa-erakunde publikoak eta maila guztietako irakaskuntza-establezimenduak, Estatuaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren, Arabako Foru Aldundiaren, toki erakundearen edo ongintza edota herri onurako izendapena duten fundazioen funtsez baizik mantentzen ez direnak, eta irabazteko asmorik gabe hezkuntza-itunpean diharduten maila guztietako irakaskuntza-establezimenduak, baita ikasleei liburu eta idazgaiak eskuratu edota mantenu erdiko zein barnetegiko zerbitzuak egiten dizkietenak ere, nahiz eta salbuespen moduan establezimenduan bertan saldu irakaskuntza tailerretako ekoizkinak, beti ere salmenta horren emaitza lehengaiak erosteko edo establezimenduaren artapenerako erabiltzen denean eta ez duenean norbanako edo gainontzeko batentzako erabilerarik.
  - f) Urritu fisiko, psikiko edo zentzumenezkoen elkarte edo fundazioak, irabazteko xederik ez dutenean, burutzen duten jarduera pedagogikoa, zientifikoa, laguntzako eta enpleguaren alorrekoak denean eta minusbaliatuen irakaskuntza, hezkuntza, birgaikuntza eta babesa eskuratzeko direnean, nahiz eta helburu horietarako dituzten lantegietan ekoizten diren ekoizkinak saldu, betiere salmenta horren emaitza lehengaiak erosteko edo establezimenduaren artapenerako erabiltzen denean eta ez duenean norbanako edo gainontzeko batentzako erabilerarik.
  - g) Gurutze Gorria eta arauz zehazten diren antzeko beste erakunde batzuk.



- h) Nazioarteko itun edo hitzarmenen arabera salbuespena aplikatu behar zaien subjektu pasiboak.
- i) Irabazi asmorik gabeko erakundeak, uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauaren 9. artikuluan aipatutako jarduera ekonomikoengatik. Hala ere, aipatu erakundeek zerga horren matrikulan alta eman izanaren aitortzea aurkeztu beharko dute, baita bajaren aitortzea ere jarduera eteten bada. Salbuespen hori aplikatzeko orduan, irabazi asmorik gabeko erakundeek uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauaren 16. artikuluko 1. atalean araututako aukeratzeko eskubidea Udalari jakinaraztearekin baldintzatuta egongo da, baita aipatu Foru Arauaren II. tituluan jasotako zerga erregimen bereziari buruzko kasuen baldintzak betetzearekin ere.

2. Aurreko idatz-zatiko a), d), g) eta h) letretan aipatutako subjektu pasiboek ez dute zertan aurkeztu Zergaren matrikularen alta-aitortzea.

3. Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak zehaztuko du aurreko 1. ataleko c) lettran zehaztutako salbuespena aplikatzen den zein kasutan eskatuko den Arabako Foru Aldundiari zuzendutako komunikazio bat; komunikazio horretan, letra horretan salbuespena aplikatzeko eskatzen diren baldintzak betetzen direla ziurtatu beharko da.

Ondorio horietarako, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak ezarriko ditu komunikazio horren edukia, epea et aurkezpen modua, baita bide telematikoz aurkeztu beharko diren kasuak ere.

Aurreko 1. ataleko c) lettran zehaztutako salbuespenari eragin diezaioketen aldakuntzez ari garela, Ordenantza Fiskal honetako 11. artikuluko 2. ataleko hirugarren lerroaldean zehaztutakoa jarraituko da.

4.- Artikulu honetako 1. ataleko e) eta f) letretan xedatutako salbuespenek erregu izaera izango dute eta, hala dagokionean, alde batek eskatuta emango dira.

#### **IV. SUBJEKTU PASIBOA**

##### **8. artikulua**

Zerga honen subjektu pasiboak dira bai pertsona fisikoak eta juridikoak, bai Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 35. artikuluko 3. atalak aipatzen dituen erakundeak, udalerrian zerga gaia eratzen duten jardueretako edozein egiten badute.

##### **9. artikulua**

Indarrean dauden zergako tarifak (uztailaren 23ko 573/1991 Araugintzako Foru Dekretuak onartutakoak) aplikatuta lortzen dena izango da zerga-kuota, ondokoak kontuan hartuta: udalak adostutako eta ordenantza honen eranskinean araututako koefizienteak, indizeak eta hobariak.

#### **V. ZERGALDIA ETA SORTZAPENA**

##### **10. artikulua**

1.- Zergaldia urte naturalarekin bat dator, alta-aitortzen direnean izan ezik; horrelakoetan, zergaldiaren jarduera hasi denetik urtea bukatu artekoa izango da. Horrek ez du eragotziko artikuluko 3. zenbakian xedatutakoa ezartzea.

2.- Zerga sortuko da zergaldiaren lehen egunean eta kuotak murriztezinak izango dira, salbu eta alta-aitortzen kasuetan, jarduera hasten deneko eguna urtearekin bat ez datorrenean; horrelakoetan, jarduera hasten den egunetik abenduaren 31 bitarteko egun-kopuruaren arabera proportzionalki kalkulatu da.

3.- Baja-aitortzen kasuetan, zergaldia urtarilaren batetik baja aitortzea aurkeztu den egunera artekoa izango da. Horrelakoetan, zerga zergaldiaren lehen egunean sortuko da eta kuota urtarilaren batetik baja-aitortzenaren egunera arte dauden hileen arabera proportzionalki kalkulatu da.

Aurreko lerroaldean aipatutako hilabeteen kopurua kalkulatzeko, baja-aitortzea aurkeztu den hila osoa balitz bezala zenbatuko da.

Zenbaki honetan xedatutakoa ez da aplikatuko jarduera hasten den egunetik baja-aitortzea egiten den eguna arte 12 hilabete igaroez badira. Horrelakoetan, baja-ematearen eguna jarduera hasiz geroztik baja-aitortzea aurkeztu den urteko abenduaren 31ra pasako da.

4.- Ikuskizunei dagokienez, kuotak saio bakanen arabera ezarritakoak direnean, sortzapena saio bakoitzeko sortuko da, eta egoki diren aitortzen aurkeztu beharko dira arauak ezarritakoari jarraiki.



## **VI. KUDEAKETA**

### **11. artikulua**

1.- Matrikula bidez kudeatuko da zerga. Aipatutako matrikula urtero egingo da eta bertan jarduera ekonomikoak, subjektu pasiboak, zerga-zorrrak, eta, hala badagokio, foru errekgargua barnean hartuko dituzten erroldak sartuko dira. Matrikula jendaurrean egongo da.

2.- Subjektu pasiboek dagozkien alta-aitorpen guztiak aurkeztu behar dituzte, eta foru arau honetako 11.1 artikuluari jarraikiz, matrikulan sartzeko beharrezko diren elementu guztiak adierazi beharko ditu, arauz ezartzen den epean. Jarraian, eskumena duen Administrazioak dagokion likidazioa egingo du, eta subjektu pasiboari jakinaraziko zaio, eta horrek, dagokion sarrera egin beharko du.

Halaber, subjektu pasiboek zergapetutako jarduerak gauzatzean sortuko diren eta zerga honen ondorioetarako garrantzia izango duten aldaketa fisikoak, ekonomikoak eta juridikoak jakinarazi beharko dituzte arau bidez ezarriko diren epe eta terminoetan. Horri dagokionez, jakinarazpen horietan nahitaez adierazi beharko da jarduerak gauzatzen diren higiezin katastroko erreferentzia.

Zehazki, Foru Arau honetako 7. artikuluko 1. ataleko c) letran zehaztutako salbuespena aplikatu ezin zaien zergadun pasiboek, eragiketa bolumena adierazi beharko diote Arabako Foru Aldundiari. Era berean, subjektu pasiboek eragiketa bolumenean izandako aldakuntzen berri eman beharko dute, baldin aldakuntza horrek berarekin badakar zerga ordenantza honetako 7. artikuluko 1. ataleko c) letran zehaztutako salbuespena aplikatzearen edo ez aplikatzearen aldaketa, bai eta ordenantza fiskal honetan zehaztutako haztapen koefizientea aplikatzearen ondorioetarako kontuan izan beharreko zatiko aldaketa.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak ezarriko ditu komunikazio horiek aurkeztu behar diren kasuak, haien edukia, epea eta aurkezteko modua, bai eta bide telematikoz noiz aurkeztu behar diren ere.

Erroldetako datuak sartu, kendu edo aldatzea, zerga-ikuskatze jarduketan edo alta-emate eta komunikazioen formalizazioaren ondorio direnak, administrazio-egintzatzat joko dira eta erroldaren aldaketa ekarriko dute. Matrikulan erroldetako datuekin lotuta dagoen edozein aldaketa egiteko, alde aurretik erroldako datuak aldatu beharko dira ezinbestez.

4.- Zerga hau autolikidazioaren bidez egiteko eskatu ahal izango da, arauen bidez ezarriko diren terminoetan.

### **12. artikulua**

1.- Udal honek ditu kudeaketa, likidazio, ikuskatze eta bilketa ahalmenak, bai araututako epean, bai premiamendu bidean.

2.- Udalaren aginpidea izango da, halaber, matrikula jendaurrean jartzea, errekgursoak eta erreklamazioak ebaztea, zerga kobratzea, salbuespenak eta hobariak ezartzea, eta, azkenik, zerga honekin lotutakoetan zergadunari laguntza eta informazioa ematea.

3.- Salbuespenak eta hobariak emateko edo ez emateko, gainera, aurretik Foru Aldundiak txosten teknikoa egin behar du, eta ondoren, emandako ebazpenaren berri ere eman beharko zaio.

### **13. artikulua**

Jardueren kalifikazioen eta kuoten zehaztapenaren aurka aurkeztutako errekgurso eta erreklamazioak Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 229. artikulutik 246.era bitartekoetan xedatutakoari jarraiki arautuko dira, eta Arabako Foru Aldundia izango da berraztertze errekgursoa ebazteko organo eskuduna. Erreklamazio horiek aurkezteak ez du egintzen betearazi beharra eragotziko.

### **14. artikulua**

1.- Udal bakoitzari dagozkion matrikulak Foru Aldundiak egingo ditu eta ondoren haiei bidaliko dizkie.

2.- Foru Aldundiak landutako matrikula jasotakoan, jendaurrean jarriko da hamabost egunez, zergadunek azter dezaten eta egoki deritzeten erreklamazioak egin ditzaten, halakorik nahi izanez gero.

### **15. artikulua**



Jendaurrean jartzeko epea amaitutakoan eta erreklamazioak ebatzi ostean, Arabako Foru Aldundiari bidaliko zaio emaitzaren egiaztatzea, hark onar dezan.

#### **XEDAPEN IRAGANKORRA**

2017, 2018 eta 2019 zergaldiei aplikatzeko hobia.

1. Abenduaren 23ko 18/2016 Foru Arauak aldatutako uztailaren 19ko 43/1989 Foru Arauaren 5. artikuluko 1. atalaren c) letraren aurreko idazketaren arabera, ekonomia jardueren gaineko zergatik salbuetsirik leudekeen subjektu pasiboek edo 2017ko urtarrilaren 1az geroztik jarduera ekonomikoa hasi duten subjektu pasiboek orain indarrean sartzen den aldaketaren ondorioz zerga-kuota ordaindu behar badute, zerga honen azken zerga-kuotari, probintziakoari zein estatukoari, hobia aplikatuko zaio, ondoren aipatzen diren ehunekoaren eta zergaldiaren arabera:

Zergaldia	Aplikatzeko hobia
2017	ehuneko 75
2018	ehuneko 50
2019	ehuneko 25

2. Jarduera ekonomikoen gaineko zergari dagokion azken udal zergari egoera beretan aplikatuko zaio hobia, aurreko atalean adierazitako mugen barnean eta 2017, 2018 eta 2019 zergaldietan, aurreko puntuan adierazitako portzentaje beretan. (zehaztu eta ikus idazketa)

#### **IKUS**

#### **AZKEN XEDAPENA**

Ordenantza hau eta haren eranskina ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean sartuko dira indarrean eta haiek aldatu edo indargabetzea adostu arte mantenduko dira indarrean.

#### **IKUS**

#### **JARDUERA EKONOMIKOEI BURUZKO ZERGA ARAUTZEKO ORDENANTZA FISKALA ERANSKINA**

##### **TARIFA**

##### **Lehenengo araua.**

Honela aterako da tributu-kuota (udalaren gutxienekoa): zerga-gaian sartuta dauden jardueri uztailaren 23ko Diputatuen Kontseiluaren Araugintzako 573/1991 Foru Arauan onartutako zergaren Tarifak aplikatuz, Toki Ogasunak aldatzeko martxoaren 31ko 12/2003 Foru Arauko bigarren xedapen gehigarrian eta xedapen indargabetzailean xedatutakoaren kalterik gabe.

##### **Bigarren araua.**

Uztailaren 19ko 43/1989 Foru Arauan, 9.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, udal honetan burututako jarduera guztietarako, Jarduera Ekonomikoei buruzko Zergaren Tarifetako gutxieneko kuota handitu egiten dira, horietan 2,00 koefizientea aplikatuta gero.

##### **Hirugarren araua**

Bilketa-aldia: urriaren 15etik **abenduaren 15era.**"

**BIGARRENA.** Udal Ordenantzaren aldaketa jendaurrean eta interesdunen aurrean ipintzea, Probintziako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko iragarki-oholean argitaratuta, hogeita hamar eguneko epean zehar, erreklamazio edo iradokizunak aurkeztu ahal ditzaten, Korporazioak ebaztekoak izango direnak. Aipatutako epean erreklamazio edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin betikoz onartutzat joko da, Udalbatzaren aldetiko Akordio berariazkoaren beharrik gabe.

**HIRUGARRENA** Alkate-Presidente jaunari gai honekin lotutako dokumentu oro sinatzeko eskumena ematea".

Alkatea: xedapen iragankorra barneratu beharko litzateke. Puntu hau egin den aldaketa bati buruzkoa da, JEZ zergaren foru arauan, eragiketen bolumen jakin bat duten enpresek ordaintzen



dutena, lehen 2koa zen, 1era jaisten da. Horrenbestez, probintziako kuotan eta estatuko kuotan zerga ordaintzen duten enpresentzat hobari automatikoa sartzen du foru arauak, eta Udalen eskuetan uzten du hobaria udal kuota ordaintzen duten enpresen kasuan. Eta proposamena udal kuota ordaintzen duten enpresen kasuan nahiz probintziako kuota edo estatuko kuota ordaintzen dutenen kasuan hobari bera aplikatzea da. Zerbait esan nahi baduzue.

Ascension Hormazabal Meabe: indarrean falta zaizu, indarrean atzeraeraginezko efektuz sartuko litzakeela indarrean, urtarrilaren 1etik.

Arkaitz San Jose Martinez: ados, nik Antolaketa Batzordeak jorratu duen gai bat aipatu nahi nuen, antolaketa batzordeak ez zuena begi onez ikusi, izan ere, kontua da, Estatuko gainerako lekuetan bezalaxe, 1.000.000 euro baino gehiago fakturatzen dutenek udal JEZ ordaintzera pasatzearena, EAEn zegoen salbuespen bat baitzen, eta horrekin dagoeneko ez dago halakorik, baina tira informazio gehiago jaso dugu eta jakina, guk batzordean ulertu genuen hobaria arau zetorren gauza bat zela, baina ez da hala ordea, baizik eta Udalaren eskuetan uzten da apur bat, esan berri duzun moduan, aplikatu ala ez aplikatzea. Salbuespen bat zegoenez hor eta dagoeneko nolabaiteko garrantzia duten enpresaz ari garenez, gure ustez, informazio jaso ondoren eta gainera probintzia mailan EH-Bildu taldetik landu den kontu bat dela ikusirik, uste dugu ez litzatekeela egokia hobari hori aplikatzea, aitzitik, arauak hori badio, 2017. urtetik, gure ustez, milioi bat eurotik gora fakturatzen duten enpresek jarduera ekonomikoen gaineko zerga ordaindu beharko lukete, dagokien moduan, eta hobaririk gabe. Hori dela eta, ezin dugu proposamen horren aldeko botoa eman, idatzita dagoen moduan dagoelarik.

Alkatea: kontua da, berriro diot, udal kuota ordaintzen duten enpresak eta probintziako kuota edo estatukoa ordaintzen dutenak egoera berean ipintzea. Probintziako edo estatuko kuota ordaintzen dutenek dagoeneko hobaria aurreikusita dute arauan eta egoera nolabait bidegabekoa da udal kuota ordaintzen dutenek ez izatea probintziako edo estatuko kuota ordaintzen dutenek duten hobari bera. Horregatik proposatzen da hobaria.

Arkaitz San Jose Martinez: bai, baina hobaria aukerakoa da. Ez dago horren betebeharririk...

Alkatea: ez, hobaria hautazkoa da udal kuota ordaintzen duten enpresentzat. Probintziako edo estatuko kuota ordaintzen duten enpresentzat automatikoa da.

Jose Luis de Valle Duque: baztertzaila da bata zein bestea.

Arkaitz San Jose Martinez: ondo da, ados, urtean 1.000.000 eurotik gora fakturatzen duten enpresak dira, eta gainera Artziniegaren kasuan, joan den egunean batzordean begiratzen aritu ginen, ez dira horrenbestez, baina tira, kontu hau...

Alkatea: beno, orduan bozkatzeari ekingo diogu.

Bozkatu egin da.

Kontrako botoak:

Batere ez.

Abstentzioa:

Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EH-Bildu alderditik (4);

Aldeko botoak:

Iñigo Gómez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, José Luis de Valle Duque eta María Lorente Burgos, EAJ-PNV alderdikoak (4);

Onartuta geratu da.

### **3.- Udal gazte zentroa kokatzeko asmoarekin Udaletxe zaharra birgaitzeko obraren hirugarren ziurtagiria onartzea.**

**“2017KO MAIATZAREN 31N EGINDAKO SAIOAN LURRALDEKO INFORMAZIO BATZORDEAK EMANDAKO IRIZPENA.**



**Gaia.- Gazte zentroa kokatzeko Udaletxe zaharra birgaitzeko obraren hirugarren ziurtagiria onartzea.**

Ikusirik 030/17 faktura-zenbakia 2017ko maiatzaren 17an aurkeztu zuena INDENORT P.V. S.L. sozietateak, gazte zentroa kokatzeko udaletxe zaharra birgaitzeko obraren hirugarren ziurtagiriari **dagokiona** 24.143,86 euroko zenbatekoaz.

**KONTUAN HARTUZ** lanak INDENORT P.V S.L. enpresari esleitu zitzaizkiola 175.333,30 euro gehi BEZ zergaren 36.819,99 eurotan, guztira, 212.153,29 euro izanik, Udalbatzak 2017ko urtarrilaren 12an hartutako akordio bidez.

**KONTUAN HARTUZ** Udal arkitektoak 2016ko ekainaren 13an aldeko txostena igorri zuela 2016ko maiatzaren 8an 1399 erregistro-zenbakiarekin aurkeztutako Proiektua onartzearen inguruan, esku-hartzea arkeologia aldetiko kontrolaren baldintzapekoa dela azpimarratuz.

**KONTUAN HARTUZ** Emilio Belon jaunak, obraren zuzendariak 2017ko maiatzaren 17an gauzatzearen hirugarren ziurtagiriaren txostena igorri zuela, bertan hurrengoia jasoz:

“Lan honi dagokionez: Gazte Zentroa kokatzeko Udaletxe Zaharra Birgaitzea, zeinaren sustatzailea eta jabea baita: Artziniegako Udal Txit Gorena, I.F.Z. zenbaki hau duena: P-0100500-H ziurtatzen da hurrengoaren aldetik: Emilio Belon Barrios, bertako arkitektoa, elkargo-zenbaki honekin: 412.899, aurrez aipatutako obra, Euskadiko eta Nafarroako Arkitektoen Elkargo Ofizialean erregistratua, 2.016/A0510 espediente-zenbakiarekin, INDENORT P.V. S.L. eraikitzaileak gauzatu duela partzialki, zeinaren I.F.Z. zenbakia hurrengoia baita: B-01.482.587

Hark behar bezala gauzatu ditu, dokumentazio grafikoan jasotzen dena eta beheran sinatzen duenaren zuzendaritza teknikoak esandakoa betez, jarraian zehazten diren partidak, zeintzuen zenbatekoak honakoak baitira: Hogeita lau mila ehun eta berrogeita hiru euro eta laurogeita sei zentimo

Obran egiaztatu ondoren emaitzetan arkitektoak emandako Egikaritze Proiektuaren dokumentazioan ezarritako betekizunak betetzen direla, segidan banakatzen dira jarraian aipatzen diren partidetatik eratortzen diren kostuak, obraren sustatzaileak kontratistari ordain diezaion.

Ziurtagiri honetan ez da igoerarik eta jaitsierarik sortu Jatorrizko Proiektuaren neurketekin alderatuta.”

Adierazitakoa oinarritzat hartuz, Lurralde Informazio-batzordeak Udalbatzari proposatzen dio har dezala hurrengo **AKORDIOA**:

**Lehena.-** onartzea 030/17 faktura-zenbakia 2017ko maiatzaren 17an aurkeztu zuena INDENORT P.V. S.L. sozietateak, gazte zentroa kokatzeko udaletxe zaharra birgaitzeko obraren hirugarren ziurtagiriari **dagokiona** 24.143,86 euroko zenbatekoaz.

**Bigarrena.-**Ekonomia Garapen eta Lurraldearen Orekarako Sailari akordio honen berri ematea, Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren barnean onartutako diru-laguntza izapidetu dadin, espediente-zenbakia: 16/10125-P”.

Alkatea: zerbait esan nahi baduzue...

Arkaitz San Jose Martinez: obraren inguruan berez ez, uste dut kontua zentroari buruzkoa bada gehiago, gero hitz egin dezakegula kontrolean...

Alkatea: ziurtagiriari buruzkoa da.

Arkaitz San Jose Martinez: bai, bai, horrexegatik, gero hitz egingo dugu udal kudeaketaren kontrolean.





Bozkatu egin da:  
Kontrako botoak:  
Batere ez.  
Abstentzioa:  
Batere ez.  
Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Jose Luis de Valle Duque eta Maria Lorente Burgos EAJ alderdiko kideak (4); Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EH Bildu alderdiko kideak (4).

Onartuta geratu da.

#### **4.- 2016. urteari dagokion kredituaren judizioz kanpoko aitortza onartzea (AULOCE S.A.U. sozietatearen fakturak eta Kuadrilla).**

##### **“2017KO MAIATZAREN 31N EGINDAKO SAIOAN OGASUN INFORMAZIO BATZORDEAK EMANDAKO IRIZPENA.**

*Ikusirik 2017ko maiatzaren 31n Idazkaritzak 2015eko eta 2016ko ekitaldietako hurrengo kreditua judizioz kanpo aitortzeko prozedurari eta legeria aplikagarriari buruz igorritako txostena:*

*Hirugarrena: AULOCE.*

*“ESPUBLICO” datu-basera harpidetzea. 2015 eta 2016*

*Erregistro-data: 2017ko maiatzak 26, 1457 eta 1458 zenbakidunak*

*Zenbatekoa 3.107,53 €.*

*Hirugarrena: AIARAKO KUADRILLA.*

*2016ko likidazioaren zuzenketa. Gizarte Ongizate Laguntzailea*

*Erregistro-data: 2017ko maiatzak 18, 1364 zenbakiduna.*

*Zenbatekoa 306,59 €.*

**KONTUAN HARTUZ** 2017ko maiatzaren 31n Kontu-hartzaitzak igorritako txostena, aitorten hori zilegi zela adierazten zuena.

**KONTUAN HARTUZ** Alkatetzak horri dagokionez egindako proposamena, eta ikusirik Udalbatzari apirilaren 20ko 500/1990 Errege Dekretuko 60.2. artikulua arabera esleitzen zaion eskuduntza, 2017ko maiatzaren 31n Ogasun arloko Informazio-batzordeak erabaki du Udalbatzari proposatzea hurrengo

#### **AKORDIOA**

**LEHENA.** Kredituari dagokion judizioz kanpoko aitortzen onartzea, 2015. eta 2016. ekitaldietakoak.

*Hirugarrena: AULOCE.*

*“ESPUBLICO” datu-basera harpidetzea. 2015 eta 2016*

*Erregistro-data: 2017ko maiatzak 26, 1457 eta 1458 zenbakidunak*

*Zenbatekoa 3.107,53 €.*

*Hirugarrena: AIARAKO KUADRILLA.*

*2016ko likidazioaren zuzenketa. Gizarte Ongizate Laguntzailea*

*Erregistro-data: 2017ko maiatzak 18, 1364 zenbakiduna.*

*Zenbatekoa 306,59 €.*



**BIGARRENA.** 2017ko ekitaldiaren Aurrekontuan kargatuta, dagokion kreditua aplikatzea, "Aldizkari eta Iragarkietarako Harpidetza" izeneko 920.222.002 aurrekontu-aplikazioaren kontura, 3.107,53 euroko gastuari eta 306,59 euroko gastuari aurre egiteko, "2016ko Likidazioa. Gizarte Ongizateko Laguntzailea" 2017ko egungo aurrekontuan dagokion aldaketa burututa, kreditu gehigarriko 3/2017 espedientearen bidez".

Alkatea: beno batez ere 2015ean eta 2016an kontratatuta dugun datu-baseko bi faktura dira, fakturak ez baitziren hona iritsi, beste udalerrri batera ari ziren igortzen. Zerbait esan nahi baduzue.

Bozkatu egin da:

Kontrako botoak:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Jose Luis de Valle Duque eta Maria Lorente Burgos EAJ alderdiko kideak (4); Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EH Bildu alderdiko kideak (4).

Onartuta geratu da.

## **5.- Aiarako Kuadrillarekin lankidetzeta-hitzarmena gizarte zerbitzuetako laguntzailea finantzatzeko.**

### **"2017KO MAIATZAREN 31N EGINDAKO SAIOAN HIRITAR ARLOKO INFORMAZIO BATZORDEAK EMANDAKO IRIZPENA.**

*Ikusirik Aiara, Artziniega eta Okondoko Udalen eta Aiarako Kuadrillaren arteko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak emateko lankidetzeta-hitzarmenaren proposamena, Gizarte langileari laguntzeko administrari laguntzailearen lanposturako finantzaketaren babespean.*

**KONTUAN HARTUZ** Udalek 2017. urteari begira Arabako Foru Aldundiarekin beste lankidetzeta-hitzarmen bat sinatu dutela Zerbitzuaren estaldura areagotzeko, Hitzarmenaren eremu geografikoan biztanleria kopuruak gora egin duela eta, horren ondorioz, herritarren arretari dagokionez gabeziak, arreta-epeak atzeratuz, sortu direla aintzat hartuz.

**KONTUAN HARTUZ** gabezia horiek ordeztzeko administrari laguntzailea oinarrizko gizarte zerbitzuetako unitatearen egiturako parte modura txertatzeko premia.

**KONTUAN HARTUZ** dagokion aplikazioari aurrekontua ezarri zaiola.

2017ko maiatzaren 31n egindako saioan Hiritar arloko Informazio-batzordeak erabakitzen du eta Udalbatzari proposatzen dio har dezala hurrengo **AKORDIOA**:

**LEHENA.-** Aiara, Artziniega eta Okondoko Udalen eta Aiarako Kuadrillaren arteko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak emateko lankidetzeta-hitzarmena onartzea, Gizarte langileari laguntzeko administrari laguntzailearen lanposturako finantzaketaren babespean, hitzez hitz honi jarraiki:

**"ARTZINIEGA ETA OKONDOKO UDALEN ETA AIARAKO KUADRILLAREN ARTEKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUAK EMATEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, GIZARTE LANGILEARI LAGUNTZEKO ADMINISTRARI LAGUNTZAILEAREN LANPOSTURAKO FINANTZAKETAREN BABESPEAN**



Arespalditza, 2017ko apirilak 1

Alde batetik, **Ander Añibarro Maestre jauna Aiarako Kuadrillako Presidentea**

Bestetik, **Gentza Alamillo Udaeta jauna Aiarako Udaleko Alkate-Presidentea, Iñigo Gomez Uzueta jauna Artziniegako Udaleko Alkate-Presidentea eta Sergio Tato Eguren jauna Okondoko Udaleko Alkate-Presidentea.**

Aldeak beren karguei dagozkien eskuduntza eta konpetentzien arabera bertaratzen dira eta dokumentu hau sinatzeko gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta

### **AZALTZEN DUTE**

**Lehena.** Abenduaren 17ko Diputatuen Kontseiluko 66/2002 Foru Dekretuaren 4. artikuluan oinarritzko gizarte zerbitzuen unitateen egitura onartzen dela, horietariko bakoitzean, bere eginkizunak burutzeko, Gizarte Lan edo Gizarte Laguntzako Diplomaturako kualifikazioa duen pertsona bat izango dela eta, era berean, aurreko lerroaldean adierazitako pertsonari administrazio arloko laguntza emate aldera, proposatutako zonalde bakoitzean Administralari Laguntzailearen kualifikazioa izango duen pertsona bat izango dela, adierazten diren denborazko ratioekin.

**Bigarrena.** Hiru Udal horiek lankidetzaz hitzarmen bana dutela sinatuta Arabako Foru Aldundiarekin oinarritzko gizarte zerbitzuak finantzatzeko.

**Hirugarrena.** 2017. urtean zehar udal horiek Arabako Foru Aldundiarekin beste lankidetzaz hitzarmen bana sinatu dutela, oinarritzko gizarte zerbitzuen estaldura areagotzeko, hitzarmenaren eremu geografikoan biztanleria kopuruak gora egin duela eta, horren ondorioz, herritarren arretari dagokionez gabeziak, besteak beste arreta-epaiek atzeratuz, sortu direla aintzat hartuz, beharrezkoa izanik **administralariaren laguntzailea gaineratzea** oinarritzko gizarte zerbitzuaren unitateko egiturako parte modura.

**Laugarrena.** Aldeak bat datozela lankidetzaz hitzarmen bat sinatzearekin programa hau garatu eta bere jarraipena egiteko bitarteko egoki modura, hura funtsatu behar den baldintzetan, zeina arautuko baitute hurrengo

### **KLAUSULEK**

**LEHENA.**- Dokumentu honen helburua, alde batetik, oinarritzko gizarte zerbitzuen administralariaren laguntzailearen plazari dagokion lan-prestazioa areagotzea da, hitzarmen honetan adierazten den egunetik eta iraupenarekin, hura lanaldi **osora** pasaz, hura arautzeko arloko legerian ezarritakoaren arabera eta, adierazitako egunetik, orain arte indarrean zen laneguneko/eguneko 3 orduko prestazioa etenez, eta beste alde batetik, hiru Udalek (Artziniega, Aiara eta Okondo) konpromisoa hartzea aipatu kontratazioaren areagotze hori finantzatzeko. Zenbateko hori hiru horiek Arabako Foru Aldundiarekin 2016. urterako sinatuta duten lankidetzaz hitzarmenean oinarrituz jasoko da eta % 20 Udalek eurek egindako ekarpen bidez.

**BIGARRENA.**- **Lankidetzaz hitzarmen hau sinatzen denetik eta 2017ko urtarrilaren 1etik 2017ko abenduaren 31ra arteko efektuz**, Kuadrillak administralari laguntzailearen plaza hori kontratatuko da, lanaldi osoan.

**HIRUGARRENA.**- Artziniega, Aiara eta Okondoko Udalek, 2017. urtean Arabako Foru Aldundiarekin sinatutako lankidetzaz hitzarmenean oinarrituz, konpromisoa hartzen dutela kontratazio horren kostuaren igoera finantzatzeko sinatuta duten 2017ko lankidetzaz hitzarmen horren arabera jasotzen dituzten zenbatekoetan oinarrituz, zenbateko horren transferentzia eginez Aiarako Kuadrillari, eta % 20 Udalek egindako ekarpen bidez finantzatzuz.

**LAUGARRENA.**- Arabako Foru Aldundi Txit Gorenarekin sinatutako Lankidetzaz hitzarmen horren bidez Udal horiei dagokien finantzaketaz gain, hiru Udal horiek konpromisoa hartzen dute Gizarte Langileari laguntzeko administralari laguntzailearen kontratazioari dagokion kostuaren gainerako zenbatekoa finantzatzeko.

Eta azaldutako guztiarekiko adostasunaren froga modura, dokumentu hau sinatzen da lau kopian, buruan adierazitako leku eta egunez.

**AIARAKO KUADRILLAKO  
PRESIDENTE**

**ARTZINIEGAKO  
ALKATEA**



**Sin.: Ander Añibarro Maestre**

**Sin.: Iñigo Gomez Unzueta**

**AIARAKO UDALEKO ALKATEA**

**OKONDOKO UDALEKO ALKATEA**

**Sin.: Gentza Alamillo Udaeta**

**Sin.: Sergio Tato Eguren"**

**BIGARRENA.-** Alkatezari eskumena ematea akordio hau gauzatzeko beharrezkoa den dokumentazio oro sina dezan. "

Alkatea: hitzarmen honetan Foru Aldunditik jasotzen den finantzaketa osagarri bat aipatzen da, gizarte zerbitzuetako laguntzailearen lanaldia areagotzearen % 80 finantzatuko duena, lanaldi erdikoa izatetik lanaldi osokoa izatera pasatzen dena. Hitzarmen honen bidez Aiarako Kuadrillaren (gizarte zerbitzuetako laguntzailea kontratatzen duen erakundea) eta zerbitzua ematen den Udalen arteko (Okondo, Aiara eta Artziniega) egoera erregularizatu egiten da. Zerbait esan nahi baduzue.

Bozkatu egin da:

Kontrako botoak:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Jose Luis de Valle Duque eta Maria Lorente Burgos EAJ alderdiko kideak (4); Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EH Bildu alderdiko kideak (4).

Onartuta geratu da.

## **6.- BI-2604 errepideko (Gordexolan) irtenguneei buruzko baterako mozioa.**

**"2017KO MAIATZAREN 31N EGINDAKO SAIOAN LURRALDEKO INFORMAZIO BATZORDEAK EMANDAKO IRIZPENA.**

**BI-2604 errepideko (Gordexolan) irtenguneei buruzko udal talde politikoen baterako mozioa.**

### **ZIOEN AZALPENA**

Denbora batetik hona, Artziniegako herritarrek eta BI-2604 errepidearen erabiltzaileek Araba eta Bizkaia komunikatzeko bidean dauden abiadura motelgailu edo asto-bizkar izenekoak ondorioak jasan eta pairatzen dituzte.

Kezka eta eskari horri erantzunez, Udalbatzak mozio bat onartu zuen 2015eko azaroaren 5ean. Bertan administrazio ezberdinei dei egiten zitzairen behin eta berriz errepikatzen den arazo honi erantzuna eman ziezaieten.

Bizkaiko Foru Aldundiak berak Artziniega eta Gordexolako Udalekin eta Arabako Foru Aldundiarekin lan egiteko prestutasuna agertu du, aspaldiko arazo honi irtenbideak bilatzeko. Berez, trafikoa baretzeko eta sakanguneak egokitu eta irtengune zenbait kentzeko hainbat proposamen jasotzen dituen ikerketa bat planteatu du.



*Halaber, mozio hori guztion adostasunarekin onartzeak berekin ekarri du gizartean eta instituzioetan eztabaida bat irekitzea, hots, errepideetako irtengune eta sakanguneak traba larriak sorrarazten ari ote diren larrialdietako zerbitzuetan, gidari profesionalengan eta errepideetako ohiko erabiltzaileengan. Guztion osasunari eta osasun arloko laguntza egokiari dagokienez, eragina duten traba larriak. Horren guztiaren ondorioz, eztabaida bat plazaratu da neurri horien komenigarritasun eta abaguneei buruz eta hala bide-segurtasuna nola gidarien osasuna bermatzeko trafikoa baratzeko xedez beste zenbait neurri ikertzeko premiari buruz.*

*Horregatik guztiagatik Artziniegako Udalbatzak proposatzen du Osoko Bilkuran eztabaida eta onar dadin hurrengo:*

### **MOZIOA**

*1.-Artziniegako Udaleko Udalbatzak adierazi eta errepikatzen du ez dagoela ados BI-2604 errepideko tartean, Gordexolako udal barrutitik igarotzen den tartean, egun dagoen irtenguneen metaketarekin, hura izanik, bide bakarra gure herria beste herrigune batzuekin elkarlotzeko, non kokatzen baitiren funtsezko zerbitzu publikoak.*

*2.- Artziniegako Udaleko Udalbatzak dei egiten dio, premiaz, Bizkaiko Foru Aldundiari horiek kendu eta Gordexolako udalerriko bide-segurtasuna bermatzeko trafikoa bartzeko beste neurri batzuekin ordezkari ditzan, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Gordexolako Udalaren artean 2005ko ekainaren 9an sinatutako hitzarmenean aurreikusitakoarekin bat etorriz.*

*3.- Artziniegako Udaleko Udalbatzak Arabako Foru Aldundiaren laguntza tekniko eta instituzionala eskatzen du Artziniegako herritarren eskaera honekin lotuta.*

*4.- Artziniegako Udalak dei egiten die euskal instituzioei Euskadin trafikoa bartzeko egun dauden neurriak azter ditzaten eta larrialdietako zerbitzuak eta gidari profesionalen lan-baldintzak, edota ohiko erabiltzaileak ez kaltetzeko neurri alternatiboak azter ditzaten, trafikoa bartzeko elementu horiek guztiak egokitu edo kentzea ahalbidetzeko baterako araudi bat garatzeko xedez”.*

Alkatea: hori da mozioa. Zerbait esan nahi baduzue.

Joseba Vivanco Retes: gure aldetik, gauza bakarra, besterik gabe mozio hau zer-nola onartu den ikusita pozik gaudela azaltzeko, eta era berean Artziniegako Udaletik, eta Arabako Foru Aldundiarekin batera, baterako iritzi bat hartu delako, zeinetatik abiatuz Bizkaiarekin negoziatzen edo hitz egiten hasteko, eta, era berean, pozten gara mozio horretan, Udalaren aldetik, larrialdietako zerbitzuen edota garraioaren gaiarekiko sentsibilitatea barneratu izanagatik, mozioan ere barneratzen delako, horrenbestez, zorionak eman nahi genituen horregatik.

Inmaculada Vivanco Retes: nik uste dut guztiok uneoro izan dugun ideia bat eta sentsazio bat izan dela, eta egia da puntu honetan hiru taldeok elkarrekin lan egin dugula, Aldundiarekin batera, Arabako Foru Aldundia ere gai honetan sartzeko ekimenez, Udaletik ateratako ekimena parte hartu eta planteamendu honetan sar daitezzen, eta egin diren bilkura guztietan, non beharrezko ekarpen guztiak egin baititugu, eta espero dut honek hartu behar duen bidea hartzen hastea, eta espero dugu, ez dakit oso epe laburrean, edo luzeegia ez den epe batean lortu asmo nahi dena lor dadila, irtengune horiek desagertu daitezela eta inori kaltea eragiten ez dioten trafikoa bartzeko beste sistema batzuekin ordezkari daitezela, bide-segurtasuna, oinezkoen segurtasuna, eta era berean langileen, gidarien eta larrialdietako zerbitzuen segurtasuna mantenduz... Nik, ordea, azken lerroaldean zerbait gaineratuko nuke, ez dakit, uste dut indar gehixeko ematen diola “*Artziniegako Udalak euskal instituzio guztiei dei egiten die*”, ez dakit horrekin aski den, ala zehaztapenen bat egin beharko genukeen Gobernu, Aldundiak, Udalak eta, zehazki, Udalen bat aipatzeko... ez dakit. Baina nik hor azpimarratu egingo nuke “*euskal instituzio guztiak*” ongi baderitzozue.

Alkatea: bai, guztiak hiru Aldundietara igortzeko, Batzar Nagusietara igortzeko eta Gobernuari.

Inmaculada Vivanco Retes: eta hori ez dakit aparteko puntu modura gaineratu beharko litzatekeen, edo Instituzio horietara guztietara helaraztearena. Hots, dei egin eta helaraztea.



Ascension Hormazabal Meabe: hemen instituzio guztiei dei egin ipintzen du, eta bosgarren puntu bat gaineratzea helarazteko ...

Inmaculada Vivanco Retes: ez dakit, ongi baderitzozue.

Ascension Hormazabal Meabe: bai, baina nori?

Inmaculada Vivanco Retes: kristo guztiari.

Joseba Vivanco Retes: tira, hasiera batean, Aldundiari, Gobernuari, Bizkaiko foru Aldundiari eta Gordexolako Udalari.

Inmaculada Vivanco Retes: Arabako Foru Aldundiari, Bizkaiko Foru Aldundiari, Gordexolako Udalari, Eusko Jaurlaritzari, Barne Sailari, Trafiko Zuzendaritzari, Errepideei...

Alkatea: eta agian Udalen ordezkari modura, Gordexolako Udalaz gain, Eudelera igortzea.

Inmaculada Vivanco Retes: bai, Eudelera ere bai, irtenguneen gaiarekin lotuta zeresana ere badu eta.

Ascension Hormazabal Meabe: beraz, Gordexolako Udalari, Eudeli, Arabako Foru Aldundiari eta Bizkaikoari eta Eusko Jaurlaritzako Barne Sailari.

Alkatea: eta Gipuzkoakoari. Guztiei.

Bozkatu egin da:

Kontrako botoak:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Jose Luis de Valle Duque eta Maria Lorente Burgos EAJ alderdiko kideak (4); Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EH Bildu alderdiko kideak (4).

Onartuta geratu da.

## **7.- 2017ko lehen hiruhilekoko egikaritze-aurrekontuaren berri ematea.**

Alkatea: hor duzue informazioa, ez dakit zerbait galdetu nahi ote duzuen. Horren arabera, ordainketa egiteko batez besteko epea -3,15 egunekoa da, baina noski, 30 egun ditugu onartzeko eta 30 egun ordaintzeko. Orduan 57 egunetan ordainduko dugu.

Berlaratu diren korporazioko kideek jakintzat eman dute: Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Jose Luis de Valle Duque eta Maria Lorente Burgos EAJ alderdiko kideak (4); Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EH Bildu alderdiko kideak (4).

## **8.- Udalbatzari Alkatetzaren ebazpenak jakinaraztea.**

Alkateak, Idazkariaren laguntzarekin, 68 eta 110 bitarteko dekretuen berri eman du.

Berlaratu diren korporazioko kideek jakintzat eman dute: Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Jose Luis de Valle Duque eta Maria Lorente Burgos EAJ alderdiko kideak (4); Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EH Bildu alderdiko kideak (4).

## **9.- Udal kudeaketaren kontrola.**

- Alkatea: ezer baino lehen aipatuko dugu aurreko Bilkuran anbulantziak herrigunean sartzeari buruz galdetu zela, eta apatu nahi dut, puntu honetan, Udalaren aldetik, 2013ko uztailaren 19an kodea igorri zitzaizela, Igoalatorio Mediku Kirurgikoari, Bizkaiko Anbulantziei, Laudioko Ertzaintzari, Laudioko Suhiltzaileei, SOS Deiak Larrialdietako Zuzendaritzari eta



Sanitasi. 2015eko uztailaren 15ean berriro kodeak igorri zitzaizkien IMQ, Bizkaiko Anbulantziak, Laudioko Ertzaintza, Laudioko Suhiltzaile, SOS Deiak, Sanitas eta DYAr. Maiatzaren 8an bi anbulantzia herrigunera ez zirela sartu jakin ostean, igorri egin zaie DYA, SOS Deiak, IMQ, Bizkaiko Anbulantziak, Sanitas, Laudioko Suhiltzaile, Laudioko Ertzaintza eta Bizkaiko Osakidetzako larrialdiei. Zehazki Bizkaiko Osakidetzak larrialdiekin hitz egin genuen, kodea berriro bidaltzeko esan ziguten, eta 4 txartel ere eskatu zizkiguten. Bestalde, larrialdietako zuzendaritzak jakinarazi duenez, Osakidetzako larrialdiei, Arabako Ertzaintza eta Suhiltzaileei helarazi die, eta Osakidetzako larrialdiek ere Emerbask, Ambuiberica eta SHD enpresei jakinarazi die, eta esan digutenez, Bizkaiko koordinazio zentroko langile guztiei berriro igorri zaie. Eta edozein kasutan, larrialdi kasuan 112 zenbakia dela deiak zentralizatzen dituen. Horixe da, neurri batean, anbulantziak, suhiltzaile eta Ertzaintza herriguneari sartzeko larrialdietako kodearen banaketari dagokionez Udaletik egin diren izapideen inguruko azalpena. Eta, hala da, larrialdietako zuzendariak berretsi zigun 112 dela eragiketak zentralizatzen dituen.

Unai Gotxi Kastrexana: ez, guk azken Bilkuran galdetu genuenean ez genuen zalantzan jartzen kodea igorri ote zen. Besterik gabe esan genuen beste batzuetan ere igorri dela eta ez dela eraginkorra izan, arazoa berriro sortu delako. Arazoa ez genuen kodearen trantsizioan ikusten.

Alkatea: ez, baina ikusten duzunez Udaletik hiru bider igorri da, eta arazo bat egon denean, azkeneko hau bezala, Osakidetzako larrialdietako zerbitzuarekin ere hitz egin dela zer gertatu izan den ikusteko, eta protokoloa errepikatu da, kodeak berriro igorri dira, hobetu egin da lau txartel igorrita eta, era berean, esan digutenez, guk igorritakoez gain, haiek ere beste enpresa batzuei igorri dizkiete.

Unai Gotxi Kastrexana: baina, identifikatu al da azken aldiz herrigunera ezin sartu izanaren arazoa?

Alkatea: bada, arazoa ez dugu identifikatu. Ez dakit anbulantziak 112 zenbakira deitu ez zuen ala ez zuen...

Jose Luis de Valle Duque: haien artean kodea helarazteko kateak egin zuen huts, argi dago, baina noski, arazo hori identifikatzea, anbulantziako gidariak izan zuen ala ez sarbidea, ez dakigu beraien artean zer-nolako transmisio-bideak dituzten, ez dakigu. Kontua da, bizilagunek ordaintzen dugula odolkia, gu baikara une jakin batean gai horrekin kaltetuak. Horrenbestez, behin eta berriz dei egin kode hori eduki egin behar dutela esateko, eta bestela 112 zerbitzuaren ardura da...

Unai Gotxi Kastrexana: kodea dutela argi dugu, behin baino gehiagotan jaso baitute. Kontua da hor, transmisio-kate horretan, zerbaitek huts egiten duela, eta axola zaiguna huts egiten duen hori ebaztea da.

Joseba Vivanco Retes: azkeneko bilkuran kontua ez zen horrenbeste kode edo txartelena, izan ere, azken batean hiru edo lau bider igorri dira, ia txartel edo kodeen merkaturatze bat egoteko moduan, merkatu beltza egoteko moduan, baina kontua zen, noski zuk 112 zenbakira deitzen baduzu, Zerk huts egiten du orduan? izan ere, 112 zerbitzuak anbulantziari abisua ematen badio, edozein delarik enpresa edo edozein modutan funtzionatzen duen ere, 112 zerbitzua izango da kodea ematen den agente-zentroa, edo herri horretan sartzeko kode bat edo txartel bat behar dela ohartarazi behar duena. Jakina, teoriarik jende orok txartelak badiu, ez luke berriro huts egin behar. Baina huts egiten badu, kontua ez da larrialdietatik datorren anbulantziaren kasuan huts egiten dela, baizik eta 112 zerbitzuaren transmisio horretan huts egiten dela, izan ere, hor zerbait izan beharko du ohartarazi edo esaten diona adi! herri honetako herrigunea itxita dago, abisatuta zaude, gero ez esan niri... Jarrai dezakegu txartelak edo kodeak banatzen, ez badute ere, baina egiaz funtzionatu behar duena baita da gero...

Inmaculada Vivanco Retes: hori da azken harremanetan behin eta berriz errepikatu dena, mesedez dibulgatu eta jakinarazi dezatela jakin behar duten guztien artean.

Alkatea: eta SOS Deiak zerbitzuak ziurta dezala larrialdietako elementu guztiek badutela eta baita SOS deiak, 112, zerbitzuak berak ere, kodea han dutela dioten argibidea duela eta larrialdi kasuan haiek direla erreferentzia.

Joseba Vivanco Retes: haiek dira guztiaren muina.

Alkatea: hori da. Azalpen hori eginda, ezer adierazi nahi baduzue.



• Joseba Vivanco Retes: bai, nik gauzatxo bat galdera egin dezaten baino lehen. Uste dut, oker ez banago, gutxienez, azken bi bilkuretan, bilkuraren azken bi deialdietan gutxienez, ez da bandorik jarri, orain arte jartzen ziren, uste dut azken bilkuran Udalaren sareetan ere ez dela zintzilikatu, hori ez dakit ziur, Udalaren Facebook sarean egiten zen moduan, baina kalean ere eta bertan bai egiten zen, azken bi bilkurak ez dira ipini ere egin, orduan, hurrengo bilkuratik aurrera, ezohikoa izanik ere, edo iraileko hurrengo ohikotik aurrera, berriro egin dadila eta ez dadila egin gabe utzi.

Alkatea: bada, egia esan, ezin dizut esan jarri diren ala ez.

Joseba Vivanco Retes: ez, ez, ez, azken bi bilkurak ezetz ziur, azken biak gutxienez, ez dakit azken hirurak edo...

• Unai Gotxi Kastrexana: beno, nik espaloien kontuari helduko diot berriro. Aste honetan bizilagun batek idatzi bat sartu du adieraziz oraindik bere jabetzan badituela espaloien obran amaitzeke dauden zenbait gauza eta horretaz aparte konpondu ez diren zenbait kalte eragin zaizkiola. Eta,aldi berean, adierazi du Udalari eskatzen diola egin ditzala obra kontrolatzeko lanak eta ahalik eta lasterren konpon daitezela. Bizilagun horretaz aparte, egiazta dezakegunez, badira zenbait xehetasun duela bi hilabete konpontzeke zeudenak eta oraindik horrela daudenak, obra hasi eta urte eta sei hilabete igarota. Horrenbestez, zer gertatzen ari ote da obra horrekin horrela jarrai dezagun.

Alkatea: beste hainbatetan aipatu izan duguna, guk Aldundiarekin kudeaketa-gomendio bat dugula eta Aldundiak enpresa bati esleitu ziola kontratua, Moyua eraikuntzari, eta Aldundia arazoak izaten ari da Moyua eraikuntzarekin.

Unai Gotxi Kastrexana: Baina zein dira arazo horiek? Duela hiru bilkura, duela bi bilkura eta, joan den bilkuran, galdetu gabe, eman zenidan erantzun bera da, orain ere erantzun bera ari zara ematen.

Alkatea: bada horixe da esan ahal dizudana. Azken ziurtagiria oraindik ez dago eginda, oraindik ez dugu azken ziurtagiria jaso Aldunditik oraindik ez delako egin obraren azken ziurtagiria.

Unai Gotxi Kastrexana: Bai horixe bera esan zenidan duela bi bilkura. Era berean esan zenidan haiekin hitz egin zenuela azken ziurtagiri hori noizko aurreikusten den jakite aldera, akats horiek konpontzera hona noizko etorriko diren aurreikuste aldera.

Alkatea: bada espero dezagun udan etortzea eta udan egitea, eta udan konpon dadila.

Unai Gotxi Kastrexana: nik ere hala espero dut, baina zehaztasun apur bat gehiago.

Alkatea: ezin dizut besterik esan.

Unai Gotxi Kastrexana: bada, tira, ea Aldundiari dei egiten diogun itzul daitezen eta behingoz amai dezaten eta ez dadila gertatu, duela bi bilkura esan nuen moduan, Artekale kalean bezala, hamar urte geroago hor jarraitzen baitugu.

• Unai Gotxi Kastrexana: narriatzen harira, duela zenbait hilabete Otsati kaleko bizilagun batzuek, eta beno plan partzialeko hor gorako zonalde guzti hartakoek, idatzi bat sartu zuten gaiarekin zer gertatzen ari ote zen ikusteko. Gogoratzen dudanez, obra amaitzeke geratu zen, sententzia bat eman zen oker ez banago 2012. urtean. Bertan, obrako enpresa nolabait obra amai zedin indemnitzatzen derrigortzen zuten, errepide horretan espaloien obrako kamioien trafikoa jasan behar izan baitu, eta egoera txarrean dago, eta orain plan partzial berriko kamioien trafikoa ere ari da jasaten eta are gehiago ari da hondatzen. Diot, oker ez banago, sententzia 2012. urtekoa da, enpresak ordaindu zuen, dirua hor dago, baina zer egingo den identifikatzeko zain gaude.

Alkatea: ez, enpresak ez zuen ordaindu.

Unai Gotxi Kastrexana: baina dirua dago hor, zain.

Alkatea: bai, bai, diru bat dago, gauzatu beharreko obra batzuentatik, Udal teknikarien taldeari txosten bat eskatu zaio obraren balioespenari buruzko txosten bat egin dezan, egitea posible ote den ikusteko, zer egin behar den zehazteko, diru horren kargura obra jaso ahal izateko. Nik ere esan dut, halaxe da, bizilagunentzat zein aukera zeuden ikusi behar zela, baita





obra jasotzeko ere are hori egin gabe egonik ere, baina tira, zehazten didatena da lehendabizi obrak gauzatu behar direla obra jaso aurretik.

Unai Gotxi Kastrexana: agerikoa. Eta noiz eskatu da txosten hori.

Alkatea: txosten hori behin eta berriz eskatu da, zenbat denbora daramagu? Denbora asko daramagu haren zain.

Unai Gotxi Kastrexana: Eta zergatik ez da egin?

Alkatea: bada ez da egin, balioesten ari dira. Itxuraz zaila da egiten.

Unai Gotxi Kastrexana: badugu hor beste obra bat, erdizka.

Joseba Vivanco Retes: azken batean, nire ustez, kontua da, sententzia 2012. urtekoa bada, dagoeneko 5 urte pasa dira, zerbitzu teknikoek egiteko txosten bat falta da, eta kasu honetan zerbitzu teknikoak, azken batean, arkitektoa izango da, pentsatzen dut lehentasun kontua izango dela. Lehenestea...

Alkatea: bai, gai hori batzordean ikus dezakegu teknikariak ere zuzenean bertaratzen diren egun batean horretaz hitz egin ahal izateko.

Joseba Vivanco Retes: bai, baina esan nahi dudana da urbanizazio horretan akatsak konpontzen hasteko txosten tekniko baten zain bagaude, azkenean, Alkateak esan beharko diola arkitektoari "aizu, hau egin beharra dago bai ala bai epe honetan". Izan ere, azken batean, badakigu arkitektoa nola dagoen eta gauza asko ditu...

Alkatea: on litzateke batzorde batean hitz egitea eta teknikariak ere bertaratzea. On litzateke haiek ere egotea eta arazo hau Bilkuran orain egin dezakeguna baino sakontasun gehiagoz planteatu ahal izatea.

Unai Gotxi Kastrexana: Orduan, hurrengo batzordera etorriko dira?

Alkatea: bai.

Unai Gotxi Kastrexana: ados.

- Arkaitz San Jose Martinez: galdera bat daukat Gaztelekuaren kudeaketaren gaiari buruz Gobernuko Alderdiak gizarte-sareetan jarritako ohar baten harira, zeinaren arabera, beno, guztiok ikusi ditugu obrak, badakigu egiten ari direla, ez dakit mundu orok dakien dagoeneko enpresa baten alde egin dela, zeuden ugariren artetik, espazio hori kudeatzeko, eta beno, batzordean horretaz hitz egin gabe, nik dakidala behintzat, ohar bat ateratzen da esanez espazio horretako funtzionamendu-arauez eta espazioko gainerako hainbat gauzez hitz egingo dela. Niri gustatuko litzaidake galdetzea, zein zentzutan, nola lotzen den hau Gaztelekuaren premiari buruzko hasierako gogoetan zehar martxan jartzeko ahalegina egin zen prozesu edo partaidetza unearekin, non gurasoek eta neska-mutikoek parte hartu baitzuten... une horretan irudi jakin batekin kudeatzea ez zela planteatzen helarazi baitzitzaien. Hor geratu zen, ez zen jarraitu, ez zitzaien ezer esan, ez dakit horrek zerbaiterako balio duen, edo ez duen ezertarako balio, zerotik ote den, zer inplikatzan duen, haiek erabakitzeo aukera izango duten, egun gehiagoan irekiko den, egun gehiagoan irekiko ez den, ez dakit. Gehienbat arreta eman didalako Gaztelekuan egingo dela berezkozat emateak, baina ez du beste ezer zehazten.

Maria Lorente Burgos: Egingo dela zer?

Arkaitz San Jose Martinez: Gaztelekuaren funtzionamendu-arauek adostuko dira Gaztelekuan bertan neska-mutikoekin.

Inmaculada Vivanco Retes: Batzordean hitz egin zen, ezta?

Maria Lorente Burgos: oker ez banago, Batzorde honetan hitz egin genuen edo aurrekoan hitz egin genuen. Partaidetza-prozesu bat egin behar zen neska-mutikoekin. Hezitzaileak berak kudeatu behar zuen eta neska-mutikoak izango ziren ordutegia eta erabilera-arauek erabakiko zituztenak, hezitzailearekin batera.

Alazne Lafragua Ureta: ni hori bikain oroitzen dut, hori gainera gure aldetik atera zen proposamen bat izan baitzen, hau da, Gaztelekuak askoz ere hobeto funtzionatuko du neska-mutikoek eurek kudeatzen badute, haiek jartzen badituzte arauak... beti monitore baten gidaritzapean. Azken batean, alde horretatik zentzuz jokatu dela ikusten dut, baina ez dut uste hori denik Arkaitz esaten ari dena. Arkaitz esaten ari dena da Abenduan partaidetza-prozesu bat abiatu zela, non neska-mutikoei galdetu zitzaien zer nahi zuten... eta hori dantzan geratu da. Horrenbestez, uste dut esan nahi duela Gaztelekua ireki egingo dela eta, neska-mutikoak,



erabaki egingo zutela suposatzen zelarik, hara iritsiko dira eta, tira, han hitz egin zen guztitik ia ez dago ezer.

Maria Lorente Burgos: noski, ez dira zerotik lanean hasiko. Irailean oinarri bat dugun zerbaiten gaineko partaidetza-prozesu bat egingo da. Neska-mutikoen izatea erabaki zuten materiala kontuan hartzen da materiala erostean.

Alazne Lafragua Ureta: baina nik prozesu hori bikain oroitzen dut, azken egunean ez dakit zein Gaztelekuetik ateratako araudi batekin joan ginen, eta puntuz puntu itxuraz atsegin zitzazkien gauzez eztabaidatzen hasi ziren, eta hurrengo hilerako hitzordua egingo dela erabaki zen. Ez dut gogoan nik hori...

Maria Lorente Burgos: ikusi genuen ez zela gauza onik aterako, eta esku-hartzea erabaki genuen...

Alazne Lafragua Ureta: tira, ez zen gauza onik atera, ez zen berriro ahaleginik egin.

Maria Lorente Burgos: bilkurak ez ziren hartu behar luketen bidea hartzen ari.

Alazne Lafragua Ureta: ni bilkuretan izan nintzen eta ongi zihoala iruditu zitzaidan. Neska-mutikoak parte hartzen ari ziren, interes dezente erakutsi zuten.

Maria Lorente Burgos: nik uste dut gurasoek ez zutela inolako interesik Gaztetxokoak...

Alazne Lafragua Ureta: jakina, planteatzen ari zen moduan, izan ere, monitorerik gabeko Gaztetxokoa zen planteatzen zena, non Gaztetxokoko arduradunak gurasoak izango ziren, etab., orduan gurasoek ezetz esan zuten. Eta nik ulertzen dut alde horretatik bakoitzak berea! esatea, izan ere, ez dut ardura edo erantzukizuna hartzen, ados. Baina adierazi nahi dudana da partaidetza-prozesu bat ireki zela batez ere neska-mutikoentzat, eta ez duela jarraipenik izan.

Maria Lorente Burgos: ados, eta orain jarraipena izan dezan ahaleginduko gara guztia dinamizatuko duen monitorearekin.

Alazne Lafragua Ureta: ados, hori beste kontu bat da.

Arkaitz San Jose Martinez: Baina, enpresarekin harremanetan ipini da horretarako?

Maria Lorente Burgos: bai, noski.

Inmaculada Vivanco Retes: edozein kasutan esan nahi dut gai hau jorratu zela joan den asteko Batzordean, eta nola egingo zen aipatu da, eta neska-mutikoekin prozesu hori egingo zela behin lokala prest denean, hots, arauak zein izango diren landuko dela, irekiera, irekiera bat dago aurreikusita, baina erabakitzen denaren arabera, balioespen horietan guztietan, ordu gehiago izatea, edo egunak aldatzea, hori guztiori, tira, joan den egunean hitz egin zen. Uste dut ez dudala amestu. Joan den asteko Batzordean gai horiek ukitu ziren.

Joseba Vivanco Retes: nik uste dut haiek gai bat dutela gehiago, hots, eztabaida guztia nola geratu zen.

Maria Lorente Burgos: bai, argi dago baietz, abenduan geratu zela.

Joseba Vivanco Retes: jatorrizko eztabaida guztia, azkenean zer erabaki den.

Maria Lorente Burgos: bai, baina altzarien inguruan egindako eskari guztiak gordeta daude, eta kontuan hartuko dira haiek nahi duten material guztia erostean.

Alazne Lafragua Ureta: bai, baina une jakin batean neska-mutikoak ahalordetzeko aukera dut mintzagai, eta unea iristen denean bazter uzten ditugu nola gauzatu erabaki dugulako, eta behin hasita, hau da, aginte-makila itzuliko diegu behin guztia martxan denean, hasiera batean beste modu batera hasi ginenean.

Maria Lorente Burgos: ez diegu aginte-makila itzuliko guztia martxan denean. Irailean monitorea kontratatu da neska-mutikoak harekin batera martxan ipini dezaten.

Alazne Lafragua Ureta: jakina, hori esan nahi dut. Aginte-makila itzultzea aipatzen dut, han egongo direnean haiek izango direlako araudia eta abar erabakiko dutenak, eta uste dut hori dela egokiena. Are gehiago, hori da hasiera batetik esan dena.

Maria Lorente Burgos: bai.

Alazne Lafragua Ureta: nik esan nahi dudana da eta uste dut errepikatzen ari garela, hasi zen une hartan bazter utzi zirela. Bederen bilkura bat esateko "begira, kontua da zera erabaki dugula eta hasiera batean planteatu genuen moduan ez zuen zentzurik". Orduan...

Maria Lorente Burgos: bai, bai, argi dago hitz egitekotan geratu zela eta...

Alazne Lafragua Ureta: itzulketa bat egin behar zen. Hori besterik ez, itzulketa bat egin behar zen.



Maria Lorente Burgos: ongi, ados, Arkaitzi beste nonbaitetik jotzen ari zela ulertzen nion. Alde horretatik nik arrazoia ematen dizut. Abenduan hor geratu ziren bilkurak. Ez ziren bide ona hartzen ari eta han geratu ziren. Eta beste ikuspegi bat emateko ahalegina egin da, funtziona dezan. Enpresa batekin urtebeteko proba modura kontratazio bat egin dugunez, martxan jartzeko. Ordutegiak, arauak, altzariak, haiek erabakiko dute guztia.

Alkatea: hain zuzen, orain izango dugu lokala gaituta, hasi behar denean.

• Joseba Vivanco Retes: nik gauzatxo bat honen harira, eta ez dakit zuei iritsi zaizuen, gaitzespen baten ingurukoa da. Guri bai, eta uste dut mea culpa aitortu beharrean gaudela, pentsatzen dut guztiok. Udaletxe zaharreko obraren gaiarekin lotuta da. Inor ez zen jabetu, ez zuen ikusi edo dena delakoa, pintura babesteko premia zegoela, ataripetan zegoena, eta obra guztietan zehar, are oraintxe bertan, eta pintura hori ez zen babestu, inolaz ere. Gaitzespen hori guri egin digute, arrazoia eman diot.

Inmaculada Vivanco Retes: nik iritsi zaigun unean enpresari helarazi diot.

Joseba Vivanco Retes: nik enpresako arkitektoari galdetu nion joan den egunean, ez obrako arkitektoari baizik eta enpresakoari eta esan zidan "izan ere, Udaletik inork ez digu deus esan".

Inmaculada Vivanco Retes: hori gezurra da.

Alkatea: bada...

Joseba Vivanco Retes: haiek bai ibili ziren kontuz horma horretan ezer ez bermatzen saiatzeko...hau da, kontuan hartu zutela gauzak ez bermatuta uzteko eta hori guztiori...

Alkatea: bada, gu hasieran ez ginen jabetu, zuek bezalaxe, baina hartaz ohartu bezain pronto obrako zuzendariari, obrako zuzendari arkitektoari, bai agindu genion kontuz ibiltzeko.

Joseba Vivanco Retes: ez dago plastikorik...

Alkatea: ez dago plastikorik, baina bai, badira bermatuta dauden gauzak baina oihal batekin daude, apar batekin, pintura babestuz.

• Joseba Vivanco Retes: eta gero bi gauzatxo labur azkenik. Duela gutxi proposamen bat sartu genuen, joan den urtean ere sartu genuela uste dut, Axpeko urbanizazioan iturri publiko bat gaitzeko gaiaren inguruan. Ez dakit hori begiratu den, aukerarik dagoen, zerbitzu teknikoetara izapidea zabaldu den egin daitekeenaren inguruko aukerak ikusteko. Eta bestea garbitu eta seinaleztatu behar ziren xendren gaiari buruzkoa da, horretaz arduratuko zen enpresa bat enkargatuko zela aipatu zen. Orduan, ez dakit dagoeneko, gutxi gorabehera, hori egiten hasteko eperik dagoen ala...

Alkatea: bai, egon ginen jadanik Ganzorrotzekin, haiek kolaboratzen ari baitira, haiek egin zituzten proposamenak, eta edukitzen ditugunean beren... Baditugu posteak, erosita ditugu dagoeneko, eta seinaleztapen zehatza izaten dugunean zeraren inguruan, beno, puntu honetan erdigunera hainbat minutu ipiniko dugu, bada une horretan plakak egingo ditugu eta posteak ipiniko ditugu.

Joseba Vivanco Retes: beraz, erantzun horren baitakoa da kontua apur bat.

Alkatea: bai, itxaroten ari gara apur bat puntuak eta ipiniko duguna, denborak eta abar zehazki zehazteko... Eta iturriari dagokionez oraindik ez dugu aurreikusi. Ez ditut ekarri hemen egiteke genituen lanketak, nahikotxo ditugu, eta beno... bada, balioetsiko den zerbait da, iturri bat ipintzearena.

Eta jorratzeko beste gairik gabe, amaitutzat eman zen saioa, lehenago aipatu egunaren bederatzia eta berrogeita bost minututan. Eta guztiaren gainean, fede ematen dut.